

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarteak edo aliantzak behar ditugu. Aliantzek, negozio-eredua optimizatzen, arriskuak murrizten eta baliabideak eskuratzen lagunduko digute.

Gure proiektuak funtziona dezan ondorengo aliantzak egingo ditugu:

- Ikastetxe parte-hartzaileak.

Ikastetxeak dira gure bezero nagusiak eta plataformaren oinarrizko erabiltzaileak. Haiek osatzen dute edukien zati handi bat, ikasle eta irakasleen bidez. Horregatik, haiekin elkarlana funtsezkoa da bai edukiak eguneratzeko, bai erabileraren jarraipena egiteko.

- Eusko Jaurlaritzako, Hezkuntza-saila.

Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoen sarbidea kudeatu eta ordainduko du, eta ikastetxe pribatu edo itunpekoei diru-laguntzak emango dizkie ordaiketa errazteko. Horri esker, hezkuntza-sistemak KLIKASI bere osotasunean integratu dezake, haien hezkuntza-planean.

- Unibertsitate edo elkarte akademikoak.

Edukien fidagarritasuna eta kalitate akademikoa bermatzeko elkarlana beharrezkoa da. Horiekin batera egingo da materialaren egiaztapena, metodologia didaktikoen balorazioa eta plataforman igotzen diren dokumentuen kontrola. Horrek KLIKi benetako balio zientifiko eta pedagogikoa ematen dio. Kontrol hau unibertsitate edota elkarte akademikoen lana izango da.

- Orientatzaileak

Orientatzaileek erabiltzaileei laguntza eskainiko diete, bai ikasteko ohiturak hobetzeko, bai orientazio pedagogiko pertsonalean ere. Era berean, orientatzaileek edukiak igotzeko aukera izango dute (apunteak, azalpenak, antolaketa-gomendioak...), betiere kontrol akademikoaren arabera.

- Teknologia-enpresa laguntzaileak.

KLIK aplikazioaren eta webgunearen garapen teknologikoa eta mantentze-lanak profesionalen esku egongo dira. Segurtasun informatikoa, datuen babesa, aplikazioaren eguneraketak eta zerbitzariak bermatuko dituzte. Haien parte-hartzea funtsezkoa da, plataformaren funtzionamendu egokia eta eguneroko erabilgarritasuna ziurtatzeko.